

Euskararen berri onak eta berri txarrak

JUAN SAN MARTIN

"Diversos són els homes i diverses les parles,
i han convingut molts noms a un sol amor"
*(Orotarik dira gizakiak eta orotarik mintzairak,
baina maitasun soilean izen asko bildu dira)*

S. Espriu

Antzinatik Erdi Arora, agiriak lekuko

Erromar inperioa erortzean anitz herri agertu ziren kulturaz noraezean, gizartearentzat arau zuzenak, jakintza oparoa eta tekniken berrizketen abantailak zekarzten aurrerapena etetzeko arriskoaan jarritz. Ilundaldi luze batean murgildu ziren Europa mendebaldeko herriak Erdi Aro garaira arte.

Hala ere, etenaren ondotiko lehen mendeak inertziatzko jarraipena ezagutu zuten, poliki-poliki itzaltzen joango zena.

Egia esan, Erromako inperioak gehiago iraun balu, latinaren eraginez hainbeste hizkuntza suntsitu ziren bezala euskarak

ere galtzeko bidea zeraman. Baina badirudi inperioaren erortzeaz, ahuldua ez ezik hil zorira kondenaturik zegoena berriz zuzpertz eta indar berritu zela herriak berreskuratuz.

Latinak eman zion ahozko hizkuntza idatziz jartzeko aukera. III. mende bukaera ingurutik VI.era arte, erromar erako ohitura jarraitu zuten oroitarriak iragarkiz latinez jarritz, eta euskaldunen izen eta jainkokiak hor agertu ziren lehen aldiz latinaren grafiaz idatziak, bereziki Akitaniaren erresumetan, Novempopulania zeritzan Gaskoinan. Hauen eragina Aragoci eta Nafarroaraino iristen zen.

Gure artean, iragarki horien berri zehatzak laburki bederen eman zizkigun Koldo Mitxelena zenak *Textos arcáicos vascos* (1964) liburuaren 14-20. orrialdeetan. Ondotik, Salamancan bere ikasle izan zen Joakin Gorrotxategik zabalago landu zuen gai hori *Estudio sobre la onomástica indígena de Aquitania* (1984) deritzan liburuan, lehenago ere aditzera emana dudanez.

Geroago, mende ilunen ondotik, XI.etik nabariago agertzen zaizkigu San Millán de la Cogollako esku izkribuetan.

Bestalde, Pirineo mendien bi alderdietako toponimian euskara mintzatuaren lekukoak ditugu. Hontaz bilketa oparoa eskaini zizun Joan Corominasek.

Erdi Aroan ordea, agiri zehatzen lekukoak aurki ditzazkegu eta horien artean, José Bta. Merino Urrutiak agertu zuena bereziki, "De una fazanya de Don Morial Merino Mayor, et del Alcañlle de Oia-Castro" idazkia lekuko, non agertzen den XIII. mendearen lehen partean Burgostik Oxa-Kastroa epaiketa batean parte hartzera joan zen merioari hango alkateak nola debekua jarri zion, Oxa-Kastro haran hartako foruaren arabera nahitaezkoa zenez euskaraz ere jakin beharra. Merioak, hala ere, erregeren izenean epai-mahia osatu nahi zuen eta alkateak, tira-bira batzuen ondorean, preso sartu zueneko.

Ikus J.B. Merino Urrutiaren lana *El vascuence en el Valle de Ojacañstro* (Rioja Alta), Sociedad Geográfica Nacional erakundeak 1936an argitaratua. Gertakari hori 6-7. orrialdeetan dator.

J.B. Merino Urrutia zenak geroko urteetan ere hango euskararen ikerketak jarraitu zituen, batez ere lekuizenen bilketaz eta hirugarren argitalpen bat ere bada *La lengua vasca en la Rioja y Burgos* deritzana, 1978an Logroñoko Diputazioak argitaratua. Bertan, aipatu dudana gertakaria 18-19. orrialdeetan irakur daiteke.

Hori bai zela euskaren berri ona. Baina, orain ikus dezagun beste erresuma bateko berri txarra, mende bat geroago.

XIV. mendean Oskan (Huesca), J.M. Lakarrak aurkitu eta *Rev. de Archivos y Bibliotecas* aldizkariaren XXIX (1913) 433. orrialdean aditzera eman zenez, hiriko ordenantzen arabera bazen lege bat, 1349koa, merkaturuan arabiera, hebraiera eta euskara mintzatzea debekatzen zuena, idazkiaren parte honek argi jartzen digun bezala:

"Item nuyll corredor non sia usado que faga mercaderia ninguna que compre nin venda entre ningunas personas, faulando en algaravia ni en abraych nin en basqueng: et qui lo fara pague por coto xxx sol".

Gaia, zenbait oharrez, berriz ikutu zuen A. Apat-Echebarnek (Aingeru Irigaray) euskaltzainak *Una geografía diacrónica del euskara en Navarra* (1974) deritzan liburuaren 115-118. orrialdeetan. Oraintsu Joakin Gorrotxategik "The Basque language and Its Neighbors in Antiquity" deritzan lanean berriz aipatzen du, *Current issues in linguistic theory* saileko 131. zenbakiak eskaintzen duen *Towards a History of the Basque Language* (Amsterdam - Philadelphia, 1995) lan monografikoaren 32. orrialdean irakur daitekenez.

Nafarroako erregetzan, "Lingua Navarrorum" aipatua gora-behera, erabileraz, latina eta nafar-erromantzea ziren administratitzako hizkuntza ofizialak. Florenzio Idoatek, bi funtsionarik 1415. urtean elkarri euskaraz egin zioten gutun bat azaltzean erakusten duenez. Ikus "Una carta del siglo XV en vasconce", *Fontes Lingvae Vasconvm stvdia et docvmenta*, 2. zenbakia (1969), 287-290. orrialdeak.

Egile berak agertzen digunez, XV. mende azkenaldera agertzen dira notari protokoloen bat edo epaiketa agirietan lekukoak hitzak euskaraz idatziak: aldiz, herri askotan batzarreak euskaraz zein nafar-erromantzez egiten omen ziren, baina agiriak idatziz jasotzea bigarren hotenan egiten zen. Hala dakar *Esfuerzo*

bélico de Navarra en el siglo XVI (1981) liburuaren 218-228. orr.

Trentoko Kontsilioaren eragina

Euskaraz inprimaturik agertu zen lehen liburua *Lingvae Vasconum Primitiae* latin tituluz Etxeparek idatzia, Trentoko Kontsilioaren aurreko urtean argitaratu zen Bordelen, hau da, 1545ean. Liburuan datozen azken bertsoak, sailak, Kontrapas eta Sautrela, euskararen gorapenezkoak ditu.

Baina, Etxepare apez katolikoa izan eta Kontsilio haren arau berriak aurrez zekartzanarren, bertako zenbait parte gordinagoetatik edo, badirudi liburuok baztertuak izan zirela. Salbatu zen ale bakarra (besterik ez bai dugu ezagutzen) Biblioteque Royale-koa izan zen, orain Parisko Biblioteka Nazionalean gordetzen dena.

Gero ikusiko dugunez, elizaren jarrera ez zen izan berdina Irunean eta Kalahorran. Zeren Fernando Katolikoak 1512an Nafarroa hartu zuenetik, Albret erregea destronaturik, bere alde hain leialak zituen agramondarren alde maizago jaikitzen omen ziren nafar euskaldunak eta horregatik, Karlos V. Enperadorearen denboran, ahalegintzen omen ziren ipistiku gaztelarrak jartzen. Ikus berriz ere F. Idoateren *Esfuerzo bélico de Navarra en el*

siglo XVI liburu beraren 219. orrialdea.

Errege Felipe II.a bere poderioaren indarrez eta azpikeri guziekin baliatu zen Pio V.aren "Breve" hura lortzeko eta haren bidez Baionako Apezpikutegiko ziren herriak, Oarsotik Baztanerainokoak, Iruñera pasatzeko 1566-1567. urteetan, Iruñean Diego Ramírez ipiskua beharturik, Migel de Iterorekin baliatuz.

Itero hau Trentoko Kontsilioetan egona zen nonbait eta, bere ekintzak erakusten dutenez, gizon ausarta zen. Urte horietan hiru apez atxilotu zituen hugonotzat begiz joak eta horietako bat Logroñon Inkisizioak erre zuen. Ofizio Santu hartan agertzen diren Iteroren paperak salakuntzaz, honako hau zioten:

"porque en mi tiempo a hombres que venian por vino a Aoiz, se le tomaron cartillas luteranas en vascuence y no eran castigados por no romper la paz y porque no sabían leer ni sabían lo que contenían" (J. Goñi Gaztambide, Historia de los Obispos de Plapona, 1885, t. IV, 222. or.).

Garai hartan euskaraz eza gutzen zen doktrina bakarra Sanius de Elsok Iruñean 1561ean argitara eman zuen *Doctrina Christiana*, gazteleraz eta euskaraz egina zen.

Luterorenik ez zen ezagutu eta Calvinisten lehena, Leizarragak euskaratua, *ABC edo Christianoen instructionea* 1571ean argitaratua zen, *Testamentu Berria* eta *Kalendreraren* urte berean. Beraz, arazoa ilun badago ere maltzurkeria dirudi.

Baina, Trentoko arauen eraginez herriaren hizkuntzan doktrinak jartzea gomendatzen zen. Iruñeko Apezpikutegiak, Pastoral bisitetatik ikus ditzakenez, gaztelaniarik ulertzen ez zuten herrietan euskaraz egitea gomendatzen zuten, adibidez, Zumaiian bertan 1576. urtean: "*la doctrina cristiana de manera que se entienda en bascuence los días de fiesta*" (Goñi Gaztambide, aipatutako obraren 390. or.).

Trentoko aginduen arabera bideratu zen auzia, baina ez zenbait eragozpen sortu gabe. Nafarroan 1584ko Pastoral bisitak erakusten duenez, Allingo Eulz herrizkakoek euskararik ez zekien abata zela eta (ikus Goñi Gaztambideren aipaturiko obra, 479-480. or.). 1590. urtean idatzi ziren *Constituciones sinodales* etan finkatu ziren ordea, Pedro de la Fuente ipistikuaren denboran, doktrina irakasteko arau zehatzak.

Kalahorrako Pedro de Manso ipistikuaren aginduz egin zuen Ostolazak elebidun *Doctrina Christiana*, Bilbon 1596, ur-

tean argitaratua, herritarrei ulertzen zutenean erakasteko.

Oraindik aruntzago joan zen, 1698. urtean, Kalahorrako ipistiku zen Pedro de Lepe 1600.eko *Constituciones sinodales*-etan, doktrina ez ezik, euskaldun herrietan predikatzailak ahal delarik Euskal Herriko izatea eta euskaraz jakitea eskatzean:

"siendo el Predicador, según San Pablo, deudor a todos, debe predicar de modo que a todos aproveche; y por esta razón en todo el Vasquense los predicadores naturales de la tierra, deben ser antepuestos a los que no lo son" (Pedro de Lepe, *Constituciones synodales*, Madrid, 1700, 126-128. orr.).

Lepe ipistiku jaunak ongi ulertu zuen herriagana zuzen iristeko modua eta ongi zetorkion euskaldunon esaera zahar hura: Bakoitzari berea, Jainkoaren legea. Ez dakit "Lepek baino gehiago daki" esakuntza Kalahorrako ipistiku haregatin den, zeren bere jokaera zuzenagatik ongi merezia bai zuen. Garai haietan, Elizak, erakunde gisa, euskarari eman zion bere babesa, baina gainerako erakundeek zer?

Administraritzaren jarrera

Antonio Nebrija jarri zituen gaztelera idatziaren arauak, errege katolikoaren aginduz. Bere sa-

rerakoan ikus dezakegunez, Nebrija ez zuen itxaropen askorik gaztel-erromantzea garatuko zenik latin kultoaren aurretik jartzera arte, ez bai zion gaztelarari hortarako ahalmenik ikusten. Hala ere, ekinaren buruan erabilerak ofiziala gainditzeko bai da. Latinak ere horrela egin zuen bere bidea Europan unibertsalki izatera arte.

Aipatu ditugu San Millan de la Cogollako izkribuak, XI. mendean erromantze idatziaren erabilera azkeneko agiriak hain nabarmen uzten dituztenak. Haietatik ageri da latinetikako hizkuntzan idaztea errazago zitzaiela Berzeo bezalako elebidunei, arau berdintsuak zituztelako, eta ez ahozko euskarari. *Lingua Navarrorum* aipatu bai, baina idazteko zenik ez.

Adinean euskara ikasi zuen Arturo Campionek oso samindurik zioenez, Nafarroako erresuman bertan XV. mendeko hasiak omen ziren oraindik han zen latina utzi eta garai hartan hain guti mintzatzen zirenen artean agiri ofizialak gaztelaraz erabiltzen. Horren ondorioz, euskaldunak heuren hizkuntzaz gutietsirik, herriko zena baztertu eta beheruntza bultzatu, batez ere Nafarroako Korteetan zein Batzar nagusietan gaztelera zabaltzeko bai zuten. Ikus A. Campion, *Nabarra en su vida histórica*, 1925ean idatzia eta handik lau

urtera Irueñean "Euskariana" sailan argitaratuaren 126, 177-179. orrialdeak. Beraz, XVI. mendea zehar gure herri bertatik indartu zen administraritzan gaztelarren gorakuntza eta euskararen gainbehera. Okerrena da, erabileraren denborarekin berez jurisprudentzia bihurtzen dela eta geroztik abiadura berak ofizialtasuna eman zion.

Horren arabera ez zen beste aukerarik, arazoa bideratua zen. Estatu guzian gaztelarak ofizialtasuna de *facto* hartu zuen.

Gero, Espainiako administraritzak zuzen jarraitu du Errege Carlos III.aren *Real Cédula de 23 de junio de 1768* delakoarekin jarri zuen bidea, lehen eta bigarren mailako eskola guzietan irakas-kintza gaztelera hutsean egiteko "*únicamente en lengua castellana*". Hor erori ziren gure foruzale borrokatuak ere. Ulerkaitza baina egia.

Gaztelaririk ez zekiten eskola haurrak errukarri. Giza-gaixoeak, euskaldun familian jaiotzearen pekatuz zigorra leporatua bai zuten. Kardaberaz, Mogel, Pascual Iturriaga, Astigarra-ga eta beste guti batzuk oroigarriak ezik eskertu beharrezkoak ditugu gaur egungo haur belau-naldi berriaren aurrean. Eta gurasoek iragana kontutan har dezaten, laburki bederen jaun horiei buruzko zertzelada batzuk adieraziko ditut.

Gipuzkoako Batzar Nagusiak 1830. urteko ekainean Mondragoen (Arrasaten) bildu zirenean, A. Pascual Iturriagak txosten bat aurkeztu zuen industria, merkataritza eta euskara bultzatzeko Diputazioan batzorde berezi bat sor zezaten. Bost urte lehenago esku-liburu bat publikatua zuen eskoletan euskara-gaztelera behar bezala irakasteko. Bere proposamenak Batzarrenaren onezpena jaso zuen eta ekintza bidean jartzekotan zen, baina lehen karlisten gerrateak plangintza bertan-behera uztea behartu zuen. Aldi berean, Bizkaiko Batzarretan J. Paulo Ulibarri ahalegindu zen euskara bultzatzeaz, bere *Gutunliburua* delakoan ikus daitekebez, baina ez zuen ezer lortu. Luis Astigarragak bere aldetik, A. Pascual Iturriagarekin harremanean, eskoletarako esku-hiztegitxo gramatika erregelaz argitaratu zuen 1825ean; joan zen mendean hogeiren bat argitalpen izango zituen. Batagatik edo besteagatik, ahalegin guziok ez ziren aski izan gure foruzale haien Batzarrak gogo-indarrez berenganatzeko.

Mogelek argi utzi zuen, "*Urkatuko litukee askok euren buruak, foruen legerik txikiena galdu ez dedin. Barriz antxinagoti yatorkun euskera, galdu dedilla ordu onean*".

Tamalez, hori zen garai haietako giroa. Hortik ikus ditza-

kegu, gure politikariak garai guzietan euskara baztertu dutela, batzutan gaitzerdi gerorako utzi izan dutenean. Baina geroko geroa, beti arriskutsua.

Aldi berean, haurrak eskolaz hezi nahian, euskaldun gurasoek ere, lehenago Kardaberazek ongi zioen bezala, beren hizkuntza jatorra baztertzen zuten.

XIX. mendean, erromantiko mugimendua ideia berriekin etorri zen, herri hizkuntzei ere babesa eman nahi zioten eta poliki-poliki gauzak aldatuz joan ziren. Inoiz ez da berandu.

Eskoletan haurrak eraztunez zigortzearena

Lehenago eskoletan nolako jokaera zenaren kekuko batzuk eskainiko dituk, inork pentsa ez dezan gorago aipatu ditudan zigorketak nere ustezkoak ote diren. Hara hemen ondoko gertakari lotsagarriok.

Euskal idazleontzat liburu oso ezaguna da Kardaberazek *Eusqueraren berri onac* (1761) deritzana. Bere lehen kapituluan, "euskarak burua jasotzea Jainkoak nai du" esaldi aipatua dakarrena. Bigarren kapituluan ordea, ideia jakingarriak eskaintzen zituen euskararen hizkereri buruz; baina hirugarrena izan zait beti hunkigarriena, zeren zoritxarrez han aipatzen bai da, nik dakidanez, lehen aldiz eskoletan euskaraz mintzatzen ziren hau-

rrak eraztunez zigortzearen usarioa.

Justo Garate zenak saio ederrik eskaini zigun "El anillo escolar en la proscripción del euskera" izenburuz *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* aldizkariaren 1969-1972. urteetako zenbakietan. Azken oharretan, Arabako Dulantzín (Alegria) gertatzen zenaren berri eman zuen, 1829an Paulo Mendibil arabarrak *No me olvidez-en* (Londres, 1829) idatzi zuena lekuko. Ikus aipaturiko Bol. de la R.S.V.A.P., xxviii, 1972, 174. orrialdean. Hara zer zioen P. Mendibilek eta praktika hori zer zen, hara hemen hitzez hitz:

"Que mi lengua es la bascongada, y para obligarme a que la olvide como si fuera incompatible con aprender i saber la castellana, me condenan a recibir el maldito anillo si se me escapa una sola palabra de las que mamá con la leche, aunque diga *Ama* en lugar de *Madre*, o pronuncie *Jaungoicoa* en lugar de *Dios*, queriendo invocar su santo nombre. El anillo de mis pecados acierta a hallarse en mi poder. ¡Crímen peor que de lesa autoridad majisterial!. ¡Sotana solemnísimal!.

"¿I si no parece el anillo?. ¿Si para evitar eše paso, se oculta, o de una vez se me hace pedazos i nadie lo saca?. En tal caso, ¡ai del último que lo tuvo!. El es el respomsable. ¿I si na-

die lo tuvo, i lo dió el señor Maestro?. Todos seran azotados. ¡Cómo todos!. ¿I quién los toma a cuestras? Los señalados. ¿Qué funcionarios son esos? Cuatro o seis discípulos, escojidos entre los más robustos i mal intencionados, que son tenidos por intanjibles, sólo porque hazen ofizio de verdugos, para arrojar-se como perros de presa sobre el infelz condenado a azotaina, sujetarle, desembragarle, i llevarle delante de la poltrona del señor maestro, poniéndolo descubier-to i bien a tiro, para que no yerre el golpe de la crujiente disciplina".

Izugarria benetan Mendibilek kontatzen zuena. Hori ote da pedagogia? Eta pentsa praktika horrek urteak zehar iraun duela eta Franco-ren diktadurapean oraindik ere erabili zela, bereziki Nafarroa, Gipuzkoa eta Bizkaiko zenbait eskolatan.

Horrezaz gainera, kontsigna gisa edo, garai horietako maisu askok gurasoak gomendatzean, euskara estudiatzeko kaltegarri zela edo hurrei bi hizkuntza bateratsu irakasteak mintzatzeko toteltasuna sortzen ziotela eta abar. Denborak aldatu dira eta orain on da elebitasuna, baina batzutan, inglesa gomendagarriagoa omen. Kontutan eduki gabe guk lehenen geure gizartegi-roaren elkartasunezko oreka lortu beharra dugula. Eta kontu-

tan hartu gabe, bertan jatorrizkoa eta arbasoengandik historiak ekarri diguna dela aurreneko, gehienok opa dugun elkartasunaren onerako.

Antza denez, Kardaberazek *Eusqueraren berri onac* deritzan liburuaren hirugarren kapituluaren 16-19. orrialdeetan jartzen zuena ere Araban zen eta gogor salatzen zuen praktika txar hori, bai berak eta baita kontatu zion Erregeren goardiako kapitain harek ere. Hau zen Kardaberazen iritzia. Baina ikus dezagun zer zioen:

"Emen guraso ta maisuac falta andi bat erremediatu bear dute, ta gure Eusquerari orañaño baño mesede gueiago eguiñ. Genteen artean beste Lenguageric Eusquera baño dicha ga-beagoric ezta icusi, ta gure jatorrizco, edo jaiotzaco Izquera ezbaliz bezala ta Euscaraz itzeguitea, pecaturic aundiena baliz bezala, guiza artetic quendu, ta lurpean ondatu nai dute, ta Escoletan sortija edo siñaleaquin, azote ta castiguaquin eragotci nai dute. Cer eraqueria itsuagoric au baño? Euscaldun prestuac, ez arren orrelaco ofensaric zuen lenengo ta beti bear dezuten Eusquerari eguin. Zuen juicioa non da? Euscalerrietan nola gauza onic izango da?"

"Arabian nembillen batean, angu adisquide, ta Erregeren Guardiaco Capitan baliante bat-ec beñ esan cidan: Aita, nola Euscalerrietan, umeen aciera

ona, ta bear dan Dotrinaric izango da, baldin Eusquera ondatceco aleguñ guciac eguiten badira, ta gure mutilcho, edo aurrari bildur ta azoteaquin Eusquera itzeguitea eragozten bazaie? Oiec berac gero edo Eleizaguizon, edo Echajaunac izan bear dute. Eta guraso edo Curac diranean, nola ongui premia dan bezala, beren Etxe edo Ergoienetan (Erri chiquiai onela Araban deitzen diete) Dotrina eracatsi, ta confesatuco dute? Nola beren familietaco artu emanac, ta beste bear diran gauzac ondo aditu, ta zucenduco dituzte? Ikusten deguna da: gazteac Latin gramatica icasten dutenean, naiz Gaztelaniaz, naiz Francesez, naiz Eusqueraz itz eguiten dute, ta ori eragozten ez diete. Gramaticaco Maisu famatu bat gure egunean zan. Latin gauzac ere Eusqueraz erakusten cituena: ta Frances Euscaldunai Gramaticaco Erreglac Euscaraz adiraci, ta eracusten diezcate. Ala ez Escolan, ta ez Gramatican Euscarra beñere utci bear ezta.

Soldadu Jaun onec arrazoi andia ceucan. Aldatequean disparateric bidegabeena da, Eusquera gazteai debeatu, ta madaricatu balego bezala castigatu ta eragozte. Escolan bertan eracatsi ordu onean, ta Erdaraz jardun dezatela; baña guero libre, naiz Eusqueraz, naiz Gaztelaniaz: orrequin biertara eguingo dira. Bestela Gaztelara gazteac badijuaz: an burla, ta lotsa andien costuan badere, Erderaz icasten dute:

ta nola Eusquera quendu cieten, ta jarduten ez duten, beren Erri, edo Echeetara biurtcean, alde gucietara barregarriac oi dira: ta eguiac esan oi da: Gaztelania ez icasi ta Eusquera bai aztu. Guero emen lotsa andiaz dacuscuna: ez itz egiteco ta ez elcar aditzeco, Erderazco ta Euscarazco naspilla moldacaiz eta nazcagarri bat enzun oi da.

"Bedeica nic daquidan Maestra estimagarri errespeto andico bat, bere gracia onarequin, ta castigu gabe ume inocente sei urtecoai ere, Eusqueraz, Erderaz ta Latinez berdin, txit trebetasun andiaz ta ederqui lotsaric gabe eracasten diena. Ojala ori bera Maisu guciac eguiten balute: mutil mutu, lotu motel guchiago Errietan izango litzaque..."

Ulertu nahi duenarentzat, adibide ederra; baina hizkuntza bakarrekoek nekez uler ditzakena. Hori nolabait ulertzeko, gogoratu Espainian arabeen kontrako gerra eta aldi beran juduak bortxaz herbesteratzearen Kruzadak ekarri zuela garai haietatik gure egunokarte iraun duen esaldi lotsagabea, bestelako hizkuntzetan mintzatzen ziren guziei, gaztelera besterik ez zekitenek, mesprezuki hainbeste erabili izan dutena: "Hable usted en cristiano".

Ombudsmanen ikuspegitik

Naturala den hizkuntzari eskubide naturala zor zaio, nioen

1977ko urtarrilean *Donostiako Hoja del Lunes* astekarian argitaratu nuen artikulu hartan. Bildua dator Bidez (1981) liburuaren 301-304 orrialdeetan. Non azalzen nituen garai haretan gure hizkuntzak zituen arazoak.

Bi hizkuntza egiten diren herrietan, elebidunak ez du prole-marik sortzen elebakardunak baizik. Elkarrekiko harremanetan era egokiak lortzeko, denak elebitasunera eramatea litzauguke egokiena. Europak berez du hizkuntz gutituen kopuru handia, aldi berean bertako direnak eta elebitasunean bizitza iraunareztea erraz lor dezaketenak. Ez bai da gaur egungo gizartean legezko gure Otaño bertsolariak hain minduraz esan zuena: "Ez degu arrazoirik gutxi garelako", behingoz kriterio horrek ez du izango baliorik aurrean dugun Europa horretan.

Ararteko kargua leporatzeaz, lehenengo urte berean bisitatu nituen Espainian ziren herri defendatzaile guziak banan bana, bakoitzak bere lege barne-tik nola jokatzeko zuten ezagutu nahirik eta aldi berean kontseiluak jasoz, praktikak irakatsi zientetik. Katalunian bereziki, Sindic de Greuges-ek elebitasuna nola eramaten zuten jakin nahi nuen. Eta, hark esan zidan, bakoitzari berea errespetatu behar zitzaio-la, nahiz eta bere kasoan gehienek katalanez egin, gaztelera

kexei berenean erantzuten ziola. Baina, berak administratzeri idazki guziak katalanez bakarrik egiten zizkiela eta denek onartzen zutela. Agertu nion Euskal Herriaren egoeran ezinezko nuela jokaera berdina hartu, baizik hiritar bakoitzari berean eta hoiere jarraipena ere hiritar bakoitzarenean. Oso ondo iruditu zitzaion. Artean ez zen Galizian Valedor do Pobo-rik, baina honen legean bertan itsatsirik zuten zientapenerako bi hizkuntzak jakin beharra, jarraipenak eta txostenak galegoz egin zezakeanaren.

Gaztaroan, Greko-Erromar kulturaren oinarritzen ginela ohartu nintzenetik, inoiz ez nion aterik itxi Europaren mendebaldeko kulturari. Gogoko nuen Telesforo Aranzadiren esaldi hura: "Euskal Herria ez da enbor bitxi bat Europako mendebaldean". Eta Ararteko karguaz jabetzean, berehala sartu nintzen Europar Ombudsman Institutuan, baita urteroko batzarretara joan ere. Izan nuen zer ikasirik eta zer irakatsirik. Hala uste dut, zeren antolakuntzaz agertu nizkien ideegatik egin ninduten 1993an erakundearen buruorde eta handik urte betera buru.

Besteak beste, 1992ko otsailean Europako Kontseiluak herrialdeetako hizkuntz gutituei buruz prestatu zuten proiektore gutuna Strasburgotik igorri zigu-

nean, hura aztertzeke batzarretan partaide izan nintzen. Giro ona aurkitu nuen, uste baino hobea. Ombudsmanen aldetik, hein batean, denak kezkatuak bai ziren hizkuntza gutituak zaintzearen alde, batez ere Gutunaren 7. artikulua zekarrena betetzeaz, hezkuntzaren maila guzietara eramanaz indartzeko, zeren Europa guziaren ondare zirenez. Baina ez bakarrik hizkuntza soila, baizik bere literatura eta ingurukotzat zuen kultura bera, 8. kapituluak zekarrenaren arabera. 9.ean ordea, gauza bera eskatzen zen Justiziari dagokionean, bakoitzak bere burua bere hizkuntzan defendatzeko ahalmena izan zezan. 10.ean, agintari eta zerbitzu publikoek nola bideratu behar zituzten herri bakoitzeko arazoetan. Ondoko artikuluetan zetozten komunikabide, ekintza kulturalak, sozio-ekonomikoak, mugarteko edo mugazgandiko harremanak eta abar. Hogeita hiru artikuluk osatzen zuten proiektua, hogeita amabost orrialdetan. Asmo ederrez osatua eta ohar guti gaineratu genizkion; hori bai, lehenbait-lehen praktikan jartzea gomendatu.

Han orokorki agertu zenaren araberazko aurkezpena egin nion 1992. urteko Txostenari.

Baina batzar harek ondotik eskatzen zuen tokian-tokiko ombudsman bakoitzaren ahalmena zertan zen holako legearen eska-

riak bideratzeko. Ombudsman guzien legeak ez bai ziren berdinak. Bakoitzak zer egin genezakean ikusteko, beste batzar bat antolatu zen. Hizkuntza bat baino gehiago egiten ziren herrialdeetako bakoitzari eman zitzaigun mintzatzeko aukera, zer nolako arauetan oinarritzen ginen hizkuntzari buruzkoan eta nola bideratzen genituenaren berri emako.

Neri zegokidanean, azaldu nuen gure Autonomi herkidegoan bi hizkuntza zirela ofizial onartuak: euskara eta gaztelera. Horren harabera, hiritarrak askatasun osoz hauta zezakeela bietariko bat administraritzaren aurrean. Nik ordea, hiritarren kexak, bakoitzarengandik zetorrenean jarraitzen nituela, inongo eragospenik gabe. Arartekoa, 3/1985 Legeak arautzen zuela. Ararteko erakundea, ombudsman guziena bezala, buru egiten duen pertsona bakarraren eratzunpekoa zela, eta lege horren 15. atalak dioenez, isilpekotasuna gorde behar duela, eta erakundearen arduradun soil soilik titulularra zenezkero, nahitaezkoa zela bi hizkuntzak jakitea. Zeren hiritarrak aurkeztu behar duen kexa, bere ustez larria bazen eta honek bitartekorik nahi ez, buru eta arduradun bakarrarekin hitz egiteko eskubide osoa zuela, isilpekotasunak hori eskatzen duenezkero.

Elkarrizketetan, gertakari batzuren adierazpena exenplo gisa

agertzea eskatu zidatenean, Galdakaoko baserritar batena agertu nien, gazteleraz oso gaizki idatzitako gutun bat igorri zidala kexa pertsonalki hitzez aurkezteko eskariaz. Bulegora joan zenean, lehen hitzak: "Nik Bizkaiko euskerea eiten dot eta ez dakit ondo entendituko deustazun, ze nik ezin nei idatziz ondo agertu esan bearrekoa eta orretxegatik nai izan dot zeuri aoz agertzea". Ihardetsi nion: "Bai jauna, neuk be gurasoengandik bizkaiera ikasi neban eta oindiñok be etxian bizkaieraz egiten dot". Hark hartu zuen lasaitasuna ikustekoa zen. Kexa zehatz mehatz aurkeztu zidan eta zekarren arazoa konpondu zitzaionean, esker-rak eman zizkidan gutunez, Bizkaiko euskeran gaztelerazko ortografiarekin. Erderaz hain motel zebilen harek inoiz ez zuen euskarazko eskolarik zapaldu.

Beste batzutan, adineko pertsonak, telefonoz eskatu izan zidaten bisitarako eguna eta ordua jar nezaien. Hoietariko asko izaten ziren gazteleraz adierazteko eragozpenak zituztenak eta beste batzuk elebidunak izanarren, erreztasunagatik edo beren borondatearen arabera euskaraz nahiago zutelako. Baita ere, bazen bat administraritzako ustelkeria salatu nahirik non bilduko ginen tokia telefonoz jarri zidana, salatu beharrezkoak berez zekarren arriskuagatik. Hara

heldu nintzenean, bera aurreratu zen esanaz: "Zu euskalduna zera eta nik ere euskaraz hobeto adieraziko nizuke eta, ongi baderitzaazu, gure hizkuntzan mintzatu gera".

Batzar horietan, esperientziak elkarri erakutsiz aritzen ginenek, herrialdeko Ombudsmannaren garrantzia zertan zen agertzearen gaia hautatu zuen Europäisches Ombudsmann Institut erakundeak, Arartekoarekin Gasteizen 1993an antolatzeko. Era askotako gaiak ziren, baina hizkuntzari buruzko hitzaldia, Italiako Hego-Tiroleko Werner Palla ombudsmanak agertu zuen "Ombudsmana eta gutxiengoak" zertan hitzaldia, non azaltzen zuen hango hiru hizkuntzez aurkitzen zituen arazoak (ikus *Ombudsmannaren Hirugarren Hitzaldi Europarra. Herrialdeko Ombudsmannaren Garrantzia*. Gasteiz, 1993, 142-165. orr.). Palla jaunaren arabera, ez bakarrik berari zegokion herrialdeko hiru hizkuntzak jakitea komenigarri, baizik ombudsmanak, bereziki gutxiengoari zuzenean laguntza gehiago ematen ere jakin behar du eskuartean duen arazoa bi aldeetara berdintsua denean. Hala ere, gutiengoak, bere egoera horregatik, beti agertuko bai da galzoriaren arriskuan. Oraindik ikastekorik asko dugu.

Hizkuntzaz ez nuen arazorik sortu Legebiltzarrean. Garai ha-

retan gehiengoak behartu zuen elebiduna izendatzea. Eta, arazo honetan, bost urteren buruan egiten nuenak jurisprudenzia lortuko zuela uste nuen. Gainera, diputatu askok galdetzen zidaten hizkuntzari buruzkoa eta jakitun ziren, burutzaren ardurak bakarrik zuten erakundeak, kexak isilpean eraman beharrezkoak baziren, nahitaezkoa zela bi hizkuntzak menderatzea. Baina politikariek ezaguturik, badakit tratua araberaren direla gauzak; lortu nahi dena, gehienetan beste zerbaiten trukean. Eta, trukea, jokia da.

Gaur egungo egoera

1978ko Espainiako Konstituzio berriak ez du jarraitu Suizakoaren bide eredugarriarik ez eta ONUk 1948an giza eskubideez agertu zuen agiria 2. artikulua adierazten duena bere orokortasunean. Geroago Unesco arduratu zen lan sakon bat gertatzen, soziologo, hizkuntzalari eta pedagogoak bilduz eta elkarren artean hizkuntzen arazoa aztertuz. Horren ondorioz argitaratu eman zuen 1953an *L'emploi des langues vernaculaires dans l'enseignement* zeritzan lana.

Baina Espainiako Konstituzio berriaren sarrerako titulua 3. artikuluko lehen puntutik hiru garrengora dioena ikus dezagun, hau da, *Titulo preliminar* dela-koak zer dioen:

1. El castellano es la lengua española oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerla y el derecho a usarla.
2. Las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas de acuerdo con sus Estatutos.
3. La riqueza de las distintas modalidades lingüísticas de España es un patrimonio cultural que será objeto de especial respeto y protección.

Euskaltzaindia izan zen asmo horren aurka irten zen erakunde bakarra, Konstituzioa onartu baino hilabe lehenago publikoki salatuz. Gure politikoez ez ziren ohartu edo ez zuten ohartzerik nahi izan. Euskaltzaindiak ordea, bere aldetik, 573/1976ko otsailaren 26ko Erret Dekretu haren sarreran Errege berak eman zion mezua betearazi besterik ez zuen egin. Ikus, *Euskera* agerkariaren, XXIV. alea, 1979. urtekoan, 131-132. orrialdeak. Jakin nahi duenak, irakur beza.

Oinatin 1918. urtean Eusko Ikaskuntzaren lehen bilera hartan erakunde honen eta Euskaltzaindiaren sorrera izan zen, lau Diputazioen babespean (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa), eta 573/1976ko Erret Dekretu haren sarreran Erregeak bere aitona Oinatin egin zituen hitzak oroitu zituen:

"Consagraos al estudio y fomento de todo cuanto pueda contribuir al adelanto y progreso del País, cultivad vuestra lengua, el milenario y venerable euskera, joya preciadísima del tesoro de la humanidad, que habéis recibido de vuestros padres y debéis legar incólume a vuestros hijos".

Uste dut nahiko argi dagoe-la Euskaltzaindiak hizkuntzari buruzkoan Espainiako Constituzio honegatik bere jarrera agertu beharra. Zenbait gai ez bai dira politikoen esku uztekoak, bereziki jatorriz herri baten ondare naturalak direnean.

Euskal Herriko Autonomia Estatutua 1979ko abenduan onartu zen, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia osatzen duten herrialdeetarako, gaztelera eta euskara, bi hizkuntzak ofizialki jarri. Eta Legebiltzarrak onartu zuen azaroaren 24ko 10/1982 Legea, euskararen erabileraren arauen oinarritzkoa dena.

Aldiz, Nafarroak ez zuen hartu bide bera. Hemen, herrialdeak zatitu ziren hizkuntzen arabera, kasta desberdinekoak baidira bezala *apartheid* lotsagarrien erara jokatu: euskalduna, elebiduna eta gazteleraduna. Kontutan eduki gabe, adibidez, herri euskaldunetan badi-rela euskararik ez dakitenak eta, industrializatzearen eraginez, baita ere Tallan zein Tudelan euskaldunak;

hala denean, gizon bakoitzak zuzenean, berakin edonora darama foru pertsonala herkidego edo komunitate baten barnean, ONU-ren agiri harek dioena ongi uler eta zuzenbidez joka badezakegu.

Baina Frantzia aldeko euskaldunek zer? Alde hartako Euskal Herrian, demokrazia zaharragoaren jabe izanagatik, harritzekoa bada ere, Estatuaren aldetik ez du izan inolazko begiramenik. Familiek ahal bezala zerbait egin dute ikastolak sortuz edo eskola libreen bidez. Beraz, hango egoera larriagoa da.

Gezurra dirudi, Europaren batasunerantz goazen heinean arazo horiek hobeto ez begiratzea. Dena dela, aurrera joan dezakegu, zeren Europari begira arazoia ez baidago gehiengoan edo gutiengoan, herkidego edo giza talde bakoitzaren gogoan eta jarreran baizik. Hortarako lagungarria zaigu Santiago Petschen Verdaguer-en *Las minorias lingüísticas de Europa occidental: Documentos (1492-1989)*, 1990. urtean Eusko Legebiltzarrak argitaratua. Bi liburukiok begiratzen baditugu, hor bada hautagai eredugarriak. Ez dugu gauza berriak asmatu beharrik.

Hala ere, Autonomi herkidegoan, Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari esker, azken urteotan, haurren eskoletatik Unibertsitate-raino bideak urratu dira euskarari leku eginaz. Baina, esan beharra

dago, lehenago ikastolak indartu ez bagenu abantaila horiek nekezagoak izango zirela.

Gauza jakina da haurrak jolas gisa ikasten dituztela hizkuntzak eta bi dakizkienak hiru-garrena errazago ikasten duela. Irakaskintzaren diziplina barnean jarraitzen den artean errazago baita heziketa eta Unibertsitate-rako bidea egokiago lortzea. Baina adineko funtzionariak hizkuntz politika hertsira behartzea edo makurtaraztea beste gauza bat da. Hortan, pertsona bakoitzaren egoera, bete beharra eta ahalmena kontutan hartu beharrezkoak dira. Arazo hortan haur-errentzako pedagogia ez delako adinekoentzat baliagarri, begien bistan dago ondo ez bideratzen sortu direla tira-birak eta gorrotoak. Mogel idazleak aspaldi esan zuen:

“Aurchoac, edo gente gazteac chit erraz ta ederqui icasten dituzte itzquerac. Lau edo bost urteco mutilcho bat badator Gaztelatic Euscalerrira, laster icasico du eusquera, ta ebaquico ditu itzac guc becela, ta aztuco zaio erdera baserri baten acitzen bada. Baña badator berroquei urteco bat, bearco du dempora lucea, ta icasten duena ere, ez ondo”. (J.A. Moguel, *Confesio ta comunioco Sacramentuén gañean eracasteac*, 1800, 81. orr.)

Adinekoen alfabetatzeaz, Rikardo Arregi zenaren ideia hura, 1966an Euskaltzaindiak onartzean hasi zen Euskalduntze Alfabetatze Kanpaina (ikus Euskera, XIII, 1968, 313. or. eta bere arauak XVII, 1972, 218-219. orr.). Alfabetatzeari buruzko zenbait ekintzaren kontu emateaz ere, ikus XXVI, 1981, 159-169. orr.). Euskal Irakasle Tituluaren arauak ordea, 1972an jarri zituen (ikus Euskera, XVII, 1972, 220-223. orr.). Euskaltzaindia, erakunde bezala, lehenagoko ezinak gartu zituen urte horietan eta zuzenean ari zen bere sorreratiko arautegiaren egitekoa beteaz. Baina Autonomi herkidegoan Jaurlaritzaren esku utzi zituen eginkizun horiek. Honek, orduan sortu situen HABE eta EGA ekintza haiek aurrera eramateko. Geroztik, ezin uka, Hizkuntz politikarako erakunde eta IVAP baliatu direla hortaz eta lan egokia burutu dutela barnetegietan funtsionariari zein bestelako gizakumeei irakasten. Ez zen gutiagorako.

Politikoek lan ona egin digute hizkuntzarentzat legeak eskuratzean. Baina bestalde, jatorriz herriaren ondarea dena eta euskaldunok nortasunez bereizten gaituena, zoritxarrez, gehiegi politizaturik gelditu zaigu, batzuk alde eta beste batzuk aurka. Hori ez da ona. Zeren hizkuntzak gutxion ulermena eta errespetua behar bai du. Eta hori lortzeko, bi

bide baizik ez daude, errespetuzko heziera eta legezko elebitasunaren onezpena.

Arartekotzan nengoelarik, behar bada euskaltzaina nintzelako edo, talde desberdinetako anitz politikok keskatu rik galdezen ninduten ea hizkuntzen arazoa nola ikusten nuen edo arazo hortan bakebide egoki bat aurkitzeko moduz. Lehendabizi, guziei adierazten nien nere jokabidea, hartzen nituen kexak, naiz idatziz edo naiz ahoz, kexadun bakoitzari berak aurkezten zidan hizkuntzan jarraitzen nioela. Gero, A. Luis Villasanteren *Euskararen auziaz* (1988) liburua gomendatzen nioen, persona zintzo eta neutral baten iritzia jakin zezaten. Baina liburu hori euskaraz idatzia dagoenez, jadanik zergatik ez zuten beraiek gaztelerara itzulia administraritzak bertatik publikatzen, guziak eza-gutu zezaten, arazo hauetan edonorrentzat lagungarri delako. Batzuk agindu ere bai hortaz arduratzea, baina huts.

Legebiltzarretik politikoez legez indarrean jarri duten elebitasuna eta euskararen normal-kuntza, gehienek euskararik jakin gabe, neurri handi batean esker-garria da. Legearen asmoa bera ona bai da. Baina euskararen alde sutsuen agertzen diren politiko abertzaleetan legoke hutsik nabarmena, zeren autoritate moralak gordeko badute, lege horien

guraso direnek, lehenik beraiek bete beharrezkoa bai da. Urteak aurrera alperrik doaz legeak indarrean jarri zirenetik eta legislatazailerik gehienek beraien buruak ez dituzte behartu, agiri denez, behartzeko asmorik ere ez. Hitzak paperean eta legean jartzea ez dira aski, egin-tzekin betetzen ez badira. Hori horrela delarik, non da aberriaren guraso direnen exenplua?

Holakoetan izaten ditut nik gogoan euskal literaturak dakartzan gomendiozko zirtoak. Adibidez, Agirre Asteasukoak kontatzen duena, txangurroari bere umeakin gertatua. Honela zioen:

"Changurrua da arrai chiqui itsusi bat, cearca baicic ez dabilena. Asi zan beñ umeai eracusten, nola ibilli bear zuen, eta esaten cien: nere umechoac, zabiltzate, ez cearca, baicic zuten. Erantzun cien umeac: zoaz bada, ama, aurretic, eta jarraituco dizugu". (J.B. Agirre, *Eracusaldiac*, Tolosa, 1850, bigarren liburua, 77-78. orr.).

Izan ere, zilegi ote norberak betetzen ez duena besteei be-tearaztea? Hori horrela izanik, autoritate moralak deuseztua legoke.

Zintzo jokatzea nahi baldin bada, abertzaleen talde politikoez beren barnean ere hizkuntz politika bideratu beharra dute. Bestela gureak egin du.